

ANTONIO ZAVALA, S.I.



ZUBELTZU TA SAIKOLA

BERTSOLARIAK

ZUBELTZU TA SAIKOLA BERTSOLARIAK

AUSPOA LIBURUTEGIA

93

COLECCION AUSPOA

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J. Colegio
de S. Ignacio. Ategorrieta. — San Sebastián.**

Ordaindu bearrak:

**Urte betekoa: 380 pezeta Atzerrian: 500 pezeta
Ongilleak: 600 " Ale bakarra: 50 "**

ANTONIO ZAVALA, S. I.

ZUBELTZU TA SAIKOLA
BERTSOLARIAK

AUSPOA LIBURUTEGIA
1970

Doñuak magnetofonotik entzun eta paperean ezarri dituztenak: Manuel Yaben eta Ambrosio Zata-rain jaunak.

Azalean: Zubeltzu bertsolaria, 1969'garren urtean.

© **Auspoa Liburutegia**
Tolosa (Gulpuzcoa)

Depósito Leg. S. S. 230/70
IZARRA - Peña y Gofi, 13
San Sebastián - Marzo 1970

ARKIBIDEA

ZUBELTZU BERTSOLARIA

| | |
|--|----|
| Zubeltzu beltsolaria | 11 |
| Aotik aora | 14 |
| Lastur'ko astoa | 19 |
| Luistarren peregrinazioa | 21 |
| Erbienak | 24 |
| “Karmen bigarren egun batian...” | 27 |
| Santa Ageda bezperan | 34 |
| Itziar'ko Ama Birjiñari | 39 |
| “Begi aurrian...” | 46 |
| Iñaziyoren ezkontza | 49 |
| Aita San Josen nobena | 52 |
| Itziar'ko Ama Birjiñaren Mirari. — Urka- mendi | 55 |
| Don Migel apaizari | 58 |
| “Bertso batzuek jarri nai ditut...” | 61 |
| “Ama Birjiña Itziar'kua...” | 63 |
| Omenaldia | 66 |

PELLO SAIKOLA BERTSOLARIA

| | |
|--|----|
| Pello Saikola bertsolaria | 71 |
| (1933) Bertso Berriyak: “Bi milla urte laister dirade...” | 73 |
| (1935) Bertso Berriak: “Itz neurtu batzuk ateratzeko...” | 81 |
| San Juan gauean | 88 |
| (1941) Bertso Berriyak: “Milla urte ta bede- ratzireun berrogei eta batian...” | 94 |

| | |
|---|-----|
| Tolosa'n | 100 |
| Telesforo anaiari karta | 103 |
| Eztaietan | 105 |
| "Ondramentian atera nua..." | 107 |
| Bertso Berriak gaztien kontsolagarriak | 109 |
| Bertso Berriak: "Famili onek orain nai luke..." | 115 |
| Bertso Berriak: "Dozenatxo bat bertso jartzeko..." | 120 |
| Gaurko neskatillak | 125 |
| "Txintxiñarekin nator..." | 130 |
| Zestua'ko Martzelino lagunari | 133 |
| "Zeru goitikan..." | 134 |
| Aotik aora | 139 |
| Kondarrak | 145 |

ZUBELTZU BERTSOLARIA

ZUBELTZU BERTSOLARIA

Zubeltzu bertsolaria, Itziar'ko Zubeltzu-zar baserrian jaio zan, 1894'garrengo Uztaillaren 12'an, zortzi senideko famili batean. Uzen-deiturak, Jose Antonio Soraso Unarue ditu.

Zubeltzu-zar, Itziar'tik ordu erdi batera dago, Arrua aldera goazela.

Garai batean, batez ere gerra aurretik, askotan ibilli oi zan plazaz-plaza kantulanean. Zer esanik ez tabernan eta lagun artean. Txapel bertsolaria zanarekin aritzen zan geien-bat.

Bizi-modua ateratzearren, nekazaritzan ez-ezik, arrobian eta itzaitzan ere ondo saiatutako gizona da.

Mutil-zar banderari uko egin gabekoa degu. Bere jaiotetxean igaro du bere denborarik geiena; gero Mendata'n, eta gaur egunean illoba baten etxean bizi da, Motriko'ko partean eta Deba ibaiaren bazterrean dagoan Lasao-aundi baserrian.

Zubeltzuren bertsoak, batzuk berak

emanak eta besteak bertso-paperetatik eta errebistetatik jasoak ditugu.

Berak eskribitzeko erreztasunik ez baitu, bestek kopiatzen zizkion bertsoak. Esku bat baño geiago izan oi zuan lan orretarako.

Bañan esku oietako batek, sekretario-tza ez-ezik, orrazketa ere egin oi zion bein baño geiagotan. Euskera ustez garbitzearen, an da emen itzak aldatzen zizkion, ta, oi danez, bertsoak narrastu ta itxusitu ere bai.

Liburu ontan argitaratzeko, bertsoak berriro bere gustora jartzen jardun da Zubeltzu bertsolaria. Zenbait alditan, ordea, etzegoan bertsoa berritzerik. Ain zegoan itxura galdua. Olakoetan Zubeltzuk esaten zuan: «Urliaren lanak! Kendu ta pakea!» Ta kendu egin ditugu. Jakiña dago berak izen da guzi esaten zuala, guk Urli esan deguna.

Iñork ikusten badu liburu ontako bertso batzuk len bertso-paperetan edo errebistetan argitaratu bezelaxe ez daudela, badaki, beraz, zer dan.

Liburu au prestatzeko, Lasao-aundi'ra Zubeltzugana bisitaz lenengo aldiz joan nintzanean, irurogei ta amabost urte be-

tetzen zituan eguna izatea egokitu zan.
Ta, ain zuzen, arta-jorran ari zan. Gero,
kontu-kontari ta bertso-kantari, arratsal-
de ederra pasa genduan.

Jaungoikoak osasun eman deiola urte
askoan bere eguna arta-jorran eta ber-
tsotan pasa al izateko!

AOTIK AORA

Uztapide ta Zubeltzuk, Mardu-Etxeberriko tabernan alkarri kantatutako bertsoak:

Uzt.: Mundu onetan biar genduke
danak bizitza alaiian,
aste-egunian lan puxka bat ein
eta deskantsua jaian;
zertan ibilli errietaka
matraka ta armoniyan?
Nere laguna, galdetzen dizut:
zer berri dago Mardaia'n? (1)

Zub.: Al dan moduan esango dizut
nik dakidanen izkuntza,
ez al dakizu lenagotikan
nolakua dan morrontza?
Urtiak pranko jua zaizkit eta
tristia daukat biyotza,
gañera berriz aurtengo neguan
beti degu aize otza.

(1) Mardaia Zubeltzuren ballara da.

Uzt.: Aizazu, aita, etzaidazu jo
neri oinbeste illeta,
zuk badakizu zein aldetara
dantzatutzen dan trinketa;
beste bat igual eukiko dezu
etxian ondo gordeta,
aize otzari gogor eiteko
dezu panezko txaketa.

Zub.: Ta nik oneri artutzen diot
alako erreparua,
begira zazu zer koloretan
jarrita daukaten burua;
nai nuke baña palta det emen
neretzako anparua,
txaketa baño obia nuke
baneuka odol berua.

Uzt.: Zu baño gizon pikaruagorik
nik eztet asko ekusi,
badaukazula iruritzen zat
makiñatxo bat malezi;
ziri bat sartu Satanasi ta
bestia berriz Judasi,
morroi-papela kanpuan egin
eta etxian nagusi.

Geiago ere jardun omen ziran, bañan
bertso auek eman dizkiguna, Zubeltzu
bera, ez da ortik aurrerakoaz oroitzen.

* * *

Egun batez, Zubeltzu Itziar'ko bere illoba baten eztaietan zan. Uztapide ta Lasarte ere an ziran. Bazkalondoan, auek bertsotan asi zitezen, Zubeltzuk onela kantatu zuan:

Nere kristauak, eztek atsegin
lagun auen aldamenian,
nunbait barrendik apenas dauden
oso sosegu onian;
endemas ere bertsolai eder
oik etorri diranian,
onezkero garaia dek eta
asi zaitezte lanian!

Ala, Uztapide onela asi zan:

Alkarrengana artu baizuten
oso kariño gartsua,
eztirade bêla pasatuak
Maietza eta Martxua;
ezkonberrientzat dijua
lendabiziko bertsua,
urte askuan izan dezatela
bizitza zoriontsua. (2)

* * *

(2) Zubeltzu bera, Lasao-aundi, Motriko.

Uztapide Tolosa'n zan, bertsolari-txapelketa batera joana. Agian, 1942'gn. urtekoa izango zan, beraz. Ondoren, taberna batera sartu ta an Zubeltzu bertsolaria topo egin zuan. Bertso au kantatu zion:

Nere denboran egiña naiz ni
makiñatxo bat arrantzu,
nere aiskide biotzekua,
bosteku ori ekatzu;
zure gorputzai komeni arren
orrenbeste bat deskantsu,
beinguagatik bertso polit bat
bota zaidazu, Zubeltzu.

Ta Zubeltzuk era ontan erantzun zion:

Zu baño lagun maitiagorik
eztet izandu munduan,
noizbait biar ta juntatu gera
biak alkarren onduan;
iñoiz ainbeste memori eder
euki ez arren buruan,
dozen erdi bat botako'izkizut
gôratzen diran moduan. (3)

* * *

(3) Zubeltzu'ri jasoak.

Zubeltzuri bertso ta argibideak artzen ari nitzaiola, etxekoandreak, aren illobak alegia, etorri ta onela esan zion:

—Bota bertso bat, Jose Antonio! Bota bertso bat, orain asmatua!

Ta onek kantatu zion:

Beti biar degu guk
zerbaiteren pake,
baña ez gera engañatzen
gezurraren truke;
onek debalde kantua
oaiñ entzun nai luke,
merienda ekartzia
guk obe genduke!

Magnetofonoa martxan jarria baigenduan, bertso au ere artu zuan...

LASTUR'KO ASTOA

- 1/ Abenduaren amairuan
nola dan egun jakiña,
Zumarraga ortan izan bear du
peri eder bat egiña;
Itziar'tikan eraman zuten
oso animala piña,
aren jabiak apenas egin
zuen gasturako aña.

- 2/ Asto koskor bat zegon saltzeko
Lastur'ko mendi mortuan,
gutxienez eraman zuten
berrogei kilometruan;
Zumarraga ortâ juan ziranian
asi ziraden tratuan,
uste dedanez apenas saldu
zuten prezio altuan.

- 3/ Asto zar orrek lenago ere
gaiztoen pama bazuan,
soroetara sartzen zala-ta
kejetan zeuden auzuan;
nagusi orrek ernegatuta
perira eraman zuan,
bost pezeta eskatu eta
gero lauan saldu zuan.

- 4/ Aiskide batek esan zidana
ôindik ez daukat aztua:
arren jabia memoritikan
eztala orren nastua;
gañerakoan pasatuko da
ein bazun bere gustua,
etxian zertan eukiko zuan
lau pezetako astua?
- 5/ Lapurretan da karga eramaten
izan omen da pijua,
oain bajatuta egon biar du
dirudiela trikua,
bi belarriak bera begira
eta txima aundikua...
Aurtengo artuak trukatzeko
alare bazan naikua.
- 6/ Urtietan aurreratua da,
iya ogei t'amarrian,
ortzak juanak daduzka baña
saiatzen da belarrian;
gaztetan ondo gobernatua,
ôindik dago indarrian,
a zer saltuak egin bialtun
ijiton batzun aurrian! (1)

(1) *Argia*, 1926/XII/26.

(1926)

LUISTARREN PEREGRINAZIUA

- 1/ Milla bederatzireun eta
gañera ogei ta sei urte,
ta Urriaren amargarrena
egun ederra nik uste:
gure Aita San Inaziokin
artu nai genduan parte,
Loiola ortan juntatu gera
zortzi milla kongregante.

- 2/ Gai onetan itz egin nairikan
ondo baño're obeki,
esan bear det an giñan danak
ez giñala ibilli gaizki;
iñungo beste erriyetatik
geiago baziran noski,
Itziar mendi ta basoetatik
bildu giñan eun da zazpi.

- 3/ Itziar eta Arrua'n gendun
biotz-biotzez Jauna artu,
ta Loiola'ko elizan berriz
emen giñanak sobratu;
gure orduko pentsamentua
Luis santua goratu,
modu onetan Loiola'raño
zortzi milla giñan sartu.
- 4/ Loiola orretan ikusi gendun
makiñatxo bat altare,
konbentu eta eliz barruan
urre ikusgarriyak daure,
zillarrezko lan eder askorik,
obeik ezin iñola're,
esan nezake ez dala besteik
ikusgarri aien pare.
- 5/ Amar t'erditan ekin genion
prozesio ederrari,
ogei baziran estandarteak,
kongreganteak ugari;
mutil gaztiak giñan geienak,
guzi-guziak kantari,
egin genion eliz barruan
luistarrak leku alkarri.

6/ Naparrua'ko ta Bizkai'kua,
Araba ta Gipuzkua,
eliz aundiyan sartu giñaden
mutil-talde tajuzkua,
anaiak denak, denak alkarri
eman naiean eskua;
izan genduan meza ederra
ta otoitz eder askua. (1)

Jose Antonio Soraso
Zubelzu-zar, 24/X/1926 (1)

(1) *Argia*, 1926/XI/7.

(1927)

ERBIENAK

Motriko'ko Olaberrita ballarako ta Lasao-aundi baserriko Luis Ulazia, eiztari purrukatua zan. Egun batean iru erbi bota zituan. Aren poza! Erretratua ere atera zuan, bera, erbi oiek, zakur, eskopeta ta guzi. Ta Zubeltzuk bertso auek atera zizkion. *Argia'n* azaldu ziran, 1927/III/6'an.

- 1/ Otsaillaren seian ziraden
eta igande-goizean,
kuadrillatxo bat juntatu ziran
dibertitzeko pozean;
eskopeta ta txakurra arturik
juan ziran bide luzean,
Olaberrita ballarakoak
txapeldun daude eizean.

- 2/ Illuntzerako eudia bazan
baña goizetik oskarbi,
mendi artako pizti gaxoak
ibilli zituzten larri;
lana ederki egin zutela
aitortu dezagun garbi,
kuadrilla orrek egun batean
il zituan iru erbi.
- 3/ Eztakit zenbat eiztari ziran
baña bi txakur bakarrik,
usaia artu eta bidean
ein zuten pauso azkarrik;
erbi gaxoak biziagatik
saiatu baña alperrik,
Luis Lasao'k ez omen zeukan
begietako makarrik.
- 4/ Erbi orien pixua zer zan
oraindikan etzait aztu:
seina t'erdina libra ziran bi
burutik ez banaiz nastu,
irugarrenak zazpian berriz
oker aundirikan eztu,
nai duenak kontuak atera
orra ogei libra justu.

5/ Urtabe txarra izan da aurten
gure Jainkoak egiña,
artorik ere ezta emen izan
txarririk azteko aña;
mendira juanda kuadrilla ori
saiatu zan alegiña,
gatzaren paltan galtzen ezpada
badute naiko zeziña.

6/ Urte guzian ezta paltatzen
Lasao'n sagardorikan,
erbi-okela sobrean berriz,
ortan ezta dudarikan,
ibaia ere aldean dauka,
angulak datoz andikan...
Artoak gutxi izanagatik
eztago kuidadorikan.

7/ Egitar oiek leno bazuten (1)
eizean milla pantasi,
dotore uste izanagatik
gelditu oi da itxusi;
gaur Luis Lasao nagusi dago
bere txakur eta guzi,
erretratua or daukazute
nai badezute ikusi.

(1) Egia, Deba'ko beste ballara bat da; ta Egitarak, bertako bizi-lagunak.

«KARMEN-BIGARREN EGUN BATIAN...»

Bertso auek mutil batek jarri-arazi zizkion Zubeltzuri, esposatzeko asmotan zebilela bañan andregaiak despeira eman ziola ta abar esanaz.

Bañan etziran bertso-paperetan azaldu; mutillak ezkontzeko beste aukera bat izan zuan andik laister, eta orduan bigarren aldiz etorri zitzaion, bertsoak publikatzea komeni etzala esateko; ta ala gelditu ziran.

Orain, urteen buruan, onako auek bururatu zaizkio Zubeltzuri.

Doña, Zubeltzuk berak kantatua da; ta magnetofonotik entzun eta paperean ezarri dutenak, Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain jaunak izan dira.



- 1/ Karmen-bigarren egun batian
oiekin juntatu nitzan,
eta orduan ikusi nitun
plazetan nola zebiltzan;
esosatuko giñala biyok
urte onetan elizan,
biotzez falso, mingañez legun,
izketan gogor ari zan,
pikara orrek oraiñ utzi nau
emen utsaren peskizan.

- 2/ Bere aizpa're antxe genduen
ordun gurekin batera,
ark esan zion: «Agintzerako
orain kontuak atera!»
Baietz ta baietz, esposatzia
etzala bere kaltera,
itxura batez ematen zuan
gutzizko borondatera,
esposatuko giñala biok
andik iru illabetera.
- 3/ Andikan laixter Santa Anak ziran,
Arrua-gora juan nitzan,
neskatxa oiek plaza aldian
dantzan dotore zebiltzan;
gero illuntzian aiekin baten
etxera bajatu nitzan,
amagai ori argiya artuta
guregana etorri zan,
ongi beiratzen ziraden ordun
nolakua ote nitzan.
- 4/ Amagai orrek jai-illuntze ortan
neri esan dit aurrena:
«Zuk badakizu gu onezkero
luzaroko ez gaudena;
neregatikan eingo dezute
zeok naio dezutena,
baña paraje au ola uztiak
neri ematen dit pena,
toki polita nola daguen
jarriko degu taberna.»

- 5/ Pentsamentu bat nik egin nuan
ordutikan segituan:
«Erari saltzen emen zertako
ni ariko nauk kituan?»
Auzuetatik oien kontuak
nola jakiten nituan,
ezer badute komoran edo
igual da armariyuan,
neroni ere zalia baña
launak izango nituan.
- 6/ Andik urrengo Ama-Birjiñetan
juan giñaden Zestuâ,
kunpritziatik nere nobiya
eder orreren gustua;
egun aretan îndako gauza
ôindik ez daukat aztua,
jarri diteke, egiya da ta,
gauza ori siñistua:
orduan ere eragin ziran
bost bat duroren kastua.
- 7/ Andik urrengo Donostiya'ra
biok juan giñadenian,
an ere oso konpondu giñan
oso naitasun onian;
beretik kariñoz kendu gabe (*sic*)
nedukan aldamenian,
goguan daukat zer esan ziran
etxera gendozenian:
«Nik etzaitut zu sekula utziko
laun izan gaitezenian!»

- 8/ Andik onera etorri giñan
alkarrereren anparuan,
eta orduan zer esan ziran
oraindik daukat goguan:
iñor ni baño maitiagorik
etzedukala munduan;
itxurak eman ziñuzen bañan
etzan portatu orduan,
piñeza ederra zendukan bañan
Judas zarraren moduan.
- 9/ Andik urrengo jai-egun baten
juan nitzan beran etxera,
gure ezkontz au noiz edo nola
biar zan disponitzera;
galdetu nion: «Lengo itzian
nitzaz conforme al zera?»
«Baietz ta baietz, bizitza eder bat
pasa biar degu zartzera!»
Egun bat onik etzan neretzat
juan banitz ori artzera.
- 10/ Aizarnazabal'a juan giñaden
eta giñaden etsian,
arratsalde guzian enitun
ikusi ere nun zian;
illundu eta gero azaldu
zian sorgiñen antzian,
orduan eman ziraden itza
penaz daukat biotzian:
aren ondoren ez ibiltzeko
orduantxe esan zian.

- 11/ Oaindik gaztegi dala ezkontzeko
aitzaki ori itzegin du,
zenbatxo urte daduzkan ere
nunbait e orain jakin du;
besterenikan garbitu ez ta
bere burua zikindu,
perkal txarraren antzera orrek
muranza azkar egin du,
geroztik ezetz esatekuan
lenago zertan agindu?
- 12/ Soñekotxo bat ekusten niyon
zeru-kolore urdiña,
erromeri ta kaleko tratu
beti jazkera berdiña;
.....
.....
.....
.....
.....
..... (1)
- 13/ Arrua'n bitan, Zestua'n ere,
orrerekin izan nitzan,
beti traje bat ekusi eta
neroni lotsatzen nitzan;
Donostiya'ra juanda ere
beti orrekin zebiltzan;
zer pentsamendu nedukan ordun
orain emendik jakin zan:
ederrago bat egingo niyon
tratuan segi banitzan.

(1) Zubeltzu etzan puntu auetaz oroitu.

14/ Aukeran badaduzkala diyo
ni naizen baño obiak,
ezta millagro edukitzia
olako pitxi loriak;
sentimentuak jarri nai nitun
paper onetan neriak,
iñori burla ta parre egin
orrek dabiltzan idiak,
arrapatuko duala uste det
orain dabillen bidiak.

15/ Amabostgarren bertsuarekin
errematia det asi,
olako modun ezin liteke
mundu ontan ondo bizi;
irutik bitan izango nitun
emakumiak nagusi,
Jaun Zerukuak apartatu nau
eskandaluen igesi,
amar zentimo paper bakoitza
gusto duenak erosi.

SANTA AGEDA BESPÉRAN


Santa Ageda bezperan askotan ibilli oi zan Zubeltzu etxerik etxe koplakantari, mutil-kuadrillako koplaria bezela.

Lengo koplak zar-zarrak eta berak momentuan asmatutako berriak, mota guzietatik izaten zituan.

Guk ere bere aotik jaso ditugunak, zarrak eta berriak, berezi gabe jartzen ditugu emen.

Santa-eskean ez-ezik, San Juan bezperan ere ibillia da iru bat aldiz Usurbil aldean, angoak deituta.

Doñua, Ambrosio Zatarain jaunak papelean ezarria da, Zubeltzuk berak kantatuta magnetofonotik entzunda.



1/ Dios te salbe, Abe, Maria,
 Jainkuak gabon diyela,
 endredatzera etorri gera
 lotxo goxuan daudela.

2/ Jesukristoren etsaiak ziran
 Pillatos eta Herodes,
 lendabizitik galdetzen diet
 lutorik daukan ero ez.

- 3/ Altuan dago Errenteriya,
altuaguan Oiartzun,
ia ba, nere mutil maitiak,
altu ta berdin erantzun.
- 4/ Etxe ontako nagusi jaunak
izena daduka Aaron,
orain bertatik eskeintzen dizuet
Jainkuak dizuela gabon.
- 5/ Ortik aurrera pentsatu beza
gauza oiek nola leizkian,
lengo kostunbre zarrian gatoz
ate-ondora eskian.
- 6/ Segurantzirik ez daukat bañan
alan egin det juzkua:
lendabizitik kopla dezagun
etxeko maiorazkua.
- 7/ Azkena emen izan giñala
pasa degu urte bete,
ta arrezkero, pamili piña,
zer moduz bizi zerate?

- 8/ Lotsaturikan biar genduke
pamili danen aurrian,
baña etorri gera eskera
lengo kostunbre zarrían.
- 9/ Kuadrilla onek gaur pentsatu du
neronekiñ etortia,
t'azaldu bedi, etxeko onak,
dezuten borondatia.
- 10/ Mutil gaztiak emen ai zaizkit
arraio eta karajo,
arren ekarri, al badezute,
libra erdi bat tabako. (1)
- 11/ Mendi gañian pareta onduan
aiziak dabill almitza,
ingurutako maiorazkuak
zure ondoren dabilta.
- 12/ Gazte maitia, bildurrik gabe
etorri zaitez atera,
nobiyorikan palta badezu
nik emen badet aukera.

(1) Kopla au Deba'ko estankuan kantatu zuan
Zubeltzuk.

13/ Bein mokadua egiñ ezker
sagarra dago mutxikin,
ôingo mutillak itzegiten due
bañan kariño gutxikin. (2)

14/ Gaur Itziarren izandu gera
ta Deba'ra bera jetxi,
igaz ere izan giñaden baña
aurten e emen gera Patxi. (3)

15/ Gaur bukatua izango degu
emen genduen tratua,
urrengo artean agur ein biet,
pameli bedeinkatua.

(2) Kopla au Zubeltzuren lagun batek aur egin-
dako neska bati kantatu omen zion.

(3) Patxi ori Deba'ko tabernaria bat omen zan.
Kopla au Uztapidek kantatu omen zuan.

ITZIAR'KO AMA BIRJIÑARI BERTSO BERRIAK

Itziar'ko apaiz batek, Don Ziprianok, Ama Birjiña Itziar'koari bertsoak jartzeko ta jartzeko ari zitzaion beti Zubeltzuri.

Ala, bikario jaunak liburutxo bat eman zion, Ama Birjiñaren kondaira zuana. Andik atera zituan bertso auetako esakizunak.

Mardu-etxeberri'ko Jose Zumeta'k kopiatu zizkion. Don Ziprianok inprentara eramán zituan gero. Inprentako lana amabi duro kosta zitzaion Zubeltzuri.

Iru edo lau bertso geiago ere ba omen ziran, bañan, Zubeltzuk oraindik zergatik eztakiala, etziran paperetan azaldu.

Bertso-paper oiek molditegi-izenik gabe azaldu ziran; ta ez nuan apuntatu zeñi jaso nion etxean daukadan alea.

- 1/ Lagun bat neri allegatu zat
oso ondo itzegiña,
bertso batzuek ipiñitzera
saiatzeko alegiña;
entendimentu eskasa daukat
eta memori ariña,
laguntza eske Zugana nator,
Itziar'ko Ama Birjiña.
- 2/ Nere denboran ez naiz letua
zenbaitek ainbat liburu,
Ama Birjiña noiz azaldu zan
nik ezin esan seguru;
baña kondairai eman dizkiot
iru lau bat erreparu,
gutxienian urtiak dira
milla ta berreun inguru.
- 3/ Neskaxa on bat bein bazijuan
aste-eguntxo batian,
beraren lanak zuzen eitera
Jaunaren borondatian;
guzientzako giatzallia
etzedukan apartian,
Andre eder bat ikusi zuen
sasi ta arantzen artian.

- 4/ Emakume bat guztiz ederra
sasi ta arantzen kosketan,
aurtxo polit bat gustagarriya
zeukan bere besoetan;
neskatxa orrek zein zan jakin ez,
barrena zeukan kezketan,
Ama Birjiña bere aotik
asi zitzaion izketan.
- 5/ Ondorian zan pauso batzuek
bere aldera egiña,
zerbait galdetutziagatikan
lotsatu eiten zan baiña;
«Nor zera, Andria? —esaten ziyon—
Gelditu nai det jakiña!»
Erantzun ziyon: «Ni naiz zeruko
aingeruen Erregiña!»
- 6/ Ama gozoak esaten ziyon:
«Ai, alabatxo umilla,
ni etorri naiz zuen artera
pekatariaren billa.»
Agindu dio bere errira
lenbailen jua dedilla,
esanaz bera zegon lekuan
eliza jaso zedilla.

7/ Enkargu ori artu zuen da
etzan burutikan aztu,
erritarrari esaten ziyen
agindu ziyona justu;
jakintsu batzuk baziran eta
aiek artzen zuten estu,
berak ikusi etzutelako
etzioten nai siñistu.

8/ Neskaxa ori len bezelaxe
ai zan egiyak esaten,
erri ontako kristauak ere
fede piska bat bazuten;
egiya zala azkenerako
nonbait igerri ziyoten,
leku artara jua ziran da
eurak e ikusi zuten.

9/ Egiya zala kristau guziyak
jarri ziran jakiñian,
beren ustetan ekin zioten
gutzizko alegiñian;
zimendu txarra zegoen eta
arkaitzaren eskiñian,
eliza eitia asmatu zuten
Zabaleta'ko gañian.

10/ Beren ustetan asiko ziran
agindua zan legian,
bañan etzuten jarraitu Amak
ipiñitako bidian;
eztakit nola juaten ziran
arrastaka edo aidian,
egunez jaso zituzten danak
jetxitzen ziran gabian.

11/ Orain bezela iduripenak
baziran denbora artan,
baña goizian gelditzen ziran
lanerako gogo-faltan;
euren artian pentsatu zuten
zer egin biar zan bertan
gizon gaiztuen lana zala ta
jarri ziraden zelatan.

12/ Igarri gabe ango lan danak
laister ziraden amaitu,
Ama Birjiñak lengo tokira
danak bajatu baititu;
zelatariak alper-alperrik
jendiak jarriyak ditu,
eta gañera kastigu gabe
ez omen ziran gelditu.

13/ Aingeru batek bide-ertzetik
zelatariari diyo

Ama Birjiñaren aginduaz:
«Aida, Arrio ta Beliyó!
Emen zelatan dagoanari
kastigu ematen zayo:
zazpigarrengo belauneraño
begiyak erten begiyo!»

14/ Kastigu ura Itziartarrak
ondo daukate goguan,
Gaztañeta ta Zabale daude
Itziar'tikan albuan;
Ama Birjiñak kastigu eman
zien biar dan moduan,
bêntzat okerra igarri gabe
ekarri zuten orduan.

15/ Gero eliza egin baitzuten
agindutako lekuan,
Ama garbiak len esandako
tokitik etziran juan;
Ama Birjiña Itziar'kua
gure zai dago zeruan,
arrezkeroztik Jainkuak daki
zenbat mirari egin duan.

16/ Ama Birjiña Itziar'kuak
mirari asko baditu,
bañan guziyak paper onetan
ezin litezke kabitu;
ume askori izketarako
beren mingaña mugitu,
errena franko sendatu eta
itxuak berriz argitu.

17/ Gaixo geranok nunbait badegu
sendatzallien premiya,
Ama Birjiñak eskuan dauka
guk biar degun guziya;
soro ta zelai guzientzako
nola dagon eguzkiya,
legorrerako ta itxasorako
zu zera izar argiya.

«BEGI AURRIAN...»

- 1/ Begi aurrian ikusten detan
leku ederra ikusita,
itzegitera abiatu naiz
beste lan denak utzita;
orrez gañera nola nagan
orrelaxe iritzita,
Itziar'tarrok jarri generala
egi asko ikasita,
esan digula Aita Agirre'k
Donosti'tik etorrita.
- 2/ Ikusi degu Aita Agirre
Itziartarren artian,
aurtengo urteko amaikagarren
illen ogei ta batian;
lau egun aundi egin dizkigu
ementxen geuren artian,
ongi-etorri etortzian da
agur berua jutian,
maitetasuna (y) azaldukan
biotza bete-betian.

- 3/ Bide txarrian dijuan dena
al dan lenena zuzendu,
eta onian dijuanari
al dan guzia lagundu;
gorrotoa ta eziñ ikusia
gure artetik aldendu,
lagun urkuaz biar degula
pakian ondo konpondu...
Zerua orrela irabazten da,
digu Agirre'k aitortu.
- 4/ Jaio ta emen gabiltzan danok
noizbait bieguila jua,
jun biar ori eldu leikela
usterik ez dan orduan,
damu izatia alperrik dala
garaia juandakuan;
ori gertatu baiño lenago
jarri biegu kontuan,
oker bidetik dabillenikan
ez da sartuko zeruan.
- 5/ Bi bide nola dauden esan du,
biak guretzat aukeran,
eta betiko zorion oiek
gure lanen gora-beran;
ikusiko da egunen baten
zeiñ nola ibilli geran,
nai bada jakin, aditu gabez
ez deizkiot gelditzen geran,
nola datorren gu juzgatzera
munduaren bukaeran.

6/ Bide bat oso estua dala,
bestia berriz zabala,
eta estuan pasatutzeko
ondo jakin biar dala;
ori ikasten mundu onetan
danok saia gaitezela,
bere esanak ondo kunplitu
Aita orrek esan bezela,
berak esan du guziok bertan
erraz pasako gerala.

7/ Eskerrik asko, Aita (y) Agirre,
apala eta umilla,
mundu guziak daki zerala
iztun eder da abilla;
saia gaitezen arrapatzera
orrek esan digun malla,
Jesus maitia, etorri gero
jaio guziaren billa,
biotz-biotzez opa degu-ta
ala gertatu dedilla. (1)

(1) *Argia*, 1929/XII/15.

INAZIYOREN EZKONTZA

1/ Itziarr'en gu, mutil zar asko,
bizi gerade soziyo,
zartza-denbora pasatutzeko
andre on bana desiyo;
Ama Birjiñai eiten dizkagu
makiña bat oraziyo,
ta gure ordezesposatu da
Olano'ko Inaziyo.

2/ Etxe-aldeko maiorazkua,
apal eta suabia,
oraiñ artean ondo pasia
bere gazte denboria;
iruditurik esposatzea
zuala askoz obia,
bere andretzat aukeratu du
Uztapide'ko Maria. (1)

(1) Uztapide bertsolariaren arreba.

- 3/ Neskatxa gazte askok zedukan
orrentzat borondatia,
arritutzen naiz oraiñ artian
ezkongai au egotia;
Uztapide'tik ekarri ditu
andria eta dotia,
iruditzen zait izan duela
nik ainbateko zoria.
- 4/ Leku askotatik artuta zegon (2)
lenago bere eztayak,
orregatikan artu zituan
auzoko mutill guztiyak,
eta gañera tokatzen ziran
inguruko familiyak,
ordañetan izatiagatik
txarriyaren odolkiyak.
- 5/ Oraiñ artian beti izan da
oso leiala ta fiña,
mesede eder eta ugari
mundu onetan egiña;
auzoko mutil gaztiak ere
maite zutela jakiña,
oiek guziyak bota zioten
bosna duroko propiña.

(2) *Bertsolariya* errebistan: artu zegon.

6/ Zueltzutarrak asmatu ditu
berak al duan bezela,
ezkontza ori seguru dakit
Arrua'n izandu zala;
bere lagunak esaten dute
ondo portatua dala,
urte askoan gure Jainkuak
pakian izan ditzala. (3)

(3) *Bertsolariya* bertso-errebista, 54'gn. zenb.,
Errenteria, 1932/IX/25.

AITA SAN JOSEN NOBENA

1/ Nolabait ere zuzendu ditu
aurten Deba'ko erriak,
parroko jaunak egingo zitun
orrelako mirariak;
gorputzekoa ezer ez dala
animak zeuden eriak,
orregatikan ekarri ditu
Aita Mixiolariak.

2/ Ikusten degu orretarako
premi aundian geudena,
Pazku-denbora zuzendutzeko
ori da gauzik onena;
kaputxinoak egin digute
Deba'n bederatziurrena,
aurten ederki egiña degu
Aita San Josen nobena.

3/ Gau eta egun, goiz eta illuntze,
beti dabilta fiñezan,
munduko gauzak oso utzita
Jaungoikoakin pobrezan;
dudan egon naiz bikote ori
zerutik jetxi ote zan,
zenbaterafio saiatu diran
batek ezin dezake esan.

4/ Aita Oiartzun eta Donosti
dabilta Euskalerrian,
Jesus onaren lege zuzena
eakusten alegiñian;
jendea ernai ipintzen dute
pulpitura igotzian,
izlari sutsu ta egokiak
biak bitara lanian.

5/ Zubi luze bat emen daukagu
zerutik eta lurrera;
amar agindu oietatikan
kanpora erortzen bagera,
betiko sua guretzat dala,
animarentzat galera;
Ama garbiak eaman gaitzala
Jesus onaren aurrera!

6/ Ez gaitezela emen ibilli
geure buruan kaltean,
gure anima lotu ez dedin
etsai gaiztoen katean;
alkar maitatuz izan gaitezen
munduan geran artean,
ta Jesusgana juango gera
danok egunen batean. (1)

Zubeltzu

(1) *Argia*, 729'gn. zenb., 1935/III/31.

ITZIAR'KO AMA BIRJINAREN MIRARIA URKA-MENDI

1/ Bizkaia'n bizi ziran mutill bi
osasan ederrarekin,
aitan gaztena gustatu egin zan
Zumai'ko neska batekin,
San Migel Artadi'n bizi zana,
sarri egoten zan arekin,
ia andretzat izango zuan
itz egin zun aitarekin.

2/ Gazte galaiak modu onetan
esaten zion suabe:
«Iñola al bada egin nai nuke
zure alabaren jabe!»
Ta aitak ezetz, baldin etortzen
bazan diru asko gabe,
gutxiñez zion biar zitula
lau bat milla dolare.

3/ Gero mutillak aztiyarekin
artu baizuan partia,
ark esan zion: «Obe izango dek
Itziarr'era juatia;
Ama Birjiñak daukan koroia
guztiya urrez betia,
errosaiua ta ura salduta
osatuko dek dotia.»

4/ Artadi'tikan erten da gero
ark eman zitun pausuak;
beti bezela ontzi ederrak
ordun zitun itxasuak,
Andre Mariri ari ziranak
azaltzen maitasun gozuak,
bildurtu zan entzutian aien
salbako kañonazuak.

5/ Argiyarekin lendabizitik
eliza zuan ikusi,
berarengana urreratu zan
ta koroia kentzen asi;
Ama Birjiñak orrelakorik
nola etzuan merezi,
nolabait ere aiek artuta
aguro jun zan igesi.

6/ Gazte galaia gaizki egiñak
bereala zuan larritu,
arrats guztiyan bildurraz dar-dar
ezin omen zan gelditu;
gaba pasa ta biyamonian
eguna zuan argitu,
urruti zalakon zortzireun pauso
ez omen zituan korritu.

7/ Bere gain zuan koroia bota,
gabe nai zuan geratu,
eskuak erre egiten zizkion,
iñola ere ezin libratu;
lurreko lanak unetxo baten
egin zituan bukatu,
gerrikotikan gaztañan bera
betiko omen zan urkatu.

8/ Desgrazia au nola pasa zan
izan dezagun goguan,
Urka-mendi esango dizutet
zein aldetan dagan:
Ansorregi ta Olabe baño
pixka bat goraxeguan;
iñor bizi dan artian ori
ez da aztuko munduan! (1)

Zubeltzu-zar

(1) Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Orio'-ko Joakin Aldabe jaunaren eskutik jaso.

DON MIGEL APAIZARI

Itziar'ko apaiz bat, Don Migel, Los Ríos'ko mixiora joan zan. Zubeltzuk bost bertso auek bialdu zizkion kartaz. Berak emanak ditugu:

1/ Urte bete da gure Don Migel
Itziar'tikan jua zala,
gure Jainkuak dabillen tokin
arren guarda dezala;
iru-lau bertso zuzendutzea
Zubeltzuren egiñala,
siñistu beza berakiñ asko
akordatutzen gerala.

2/ Kristoren alde lana egiten
Don Migel jaunaren poza,
orko beruakin abuentatzia
ez da egongo erreza;
orain biotza arantzaz bete,
gero zeruko larrosa,
ango animak salbatziatik
jua zan emendik Ríos'a.

3/ Ni zenbat aldiz gôratzen naizen
gabian eta egunez,
bañan urruti egon biar du
askok esaten dutenez;
Jainkuak daki ze lan dâbillen
emakume ta gizez,
egun erdi bat pasako nuke
orko kontuak esanez.

4/ Jai-egunian eleizara juan,
meza denbora osuan
Ama Birjiñai erregututzen
beti naitasun gozuan,
arren eztedin gaizki ibilli
gaiztuen amenazuan;
mixonero on bat izandu dedin
jardutzen det errezuan.

5/ Itziartarrak Don Migelentzat
geuden naitasun puertian,
ez al gerade aztuko nunbait
egonâtik apartian;
oraindikan or segi naiko du
eztakit zenbat urtian,
naiago nuke etorritzia
neu bizi naizen artian.

- 3/ Geiagok ere ez gendukian
ara juañ nai-ezikan,
diru pixka bat izan ezkerro
lanerako ez presikan;
oien abotik ez da entzuten
komeni ez dan gauzikan,
oien tartian aitona zar bat
emango nuke kasikan,
bestela neu're oiekin baten
juango nitzan pozikan.
- 4/ Ejerzizioak egiñ ezkerro
tokatutzen dan legian,
oriek esan digute gauzak
nola egin biar dian;
guri erakusten saiatu dira
beren posibilitadian,
orazio ta penitentzia
sei egun da zazpi gabian,
gero betiko sartu ez gaitezen
diabruaren labian.
- 5/ Ejerzizioak egiñ ezkerro
tokatutzen dan moduan,
obra oberikan asko ez du
gizonak eingo munduan;
aste orretan geuk ere zerbait
errezatutzen genduan,
eurekin baten inplamatu nai
galtzairuaren moduan,
gero zeruan goza gaitezen
danak alkarren onduan.

«BERTSO BATZUEK JARRI
NAI DITUT...»

Urte batean, Itziar'ko mutil gazteak ejerzizioak egitera Donostia'ko Santa Teresa'ra joan ziran. Beren izenean, Zurbeltzuk bertso auek jarri zituan:

1/ Bertso batzuek jarri nai ditut
poliki preparatuak,
arren laguntza eman deigula
Jaungoiko bedeinkatuak;
soldadutzako denborak ditugu
oraintxen alderatuak,
kontzientzia garbi jarri nai
ta animako kontuak,
origatikan egin ditugu
ejerzizio santuak.

2/ Gazte sasoian egiten degu
auskalo zenbat jolaste,
gorputza alegre egonagatik
anima igual triste;
tentazio ta peligro txarrak
daude igande ta aste;
gure erriko apaiz jaun oiek
orretaratu gaituzte:
Itziar'tikan izandu gera
ogetamar mutil gazte.

6/ Donostia'ko Santa Teresâ
egin genduan bisita,
zerua zala esan zeikian
leku ura ikusita;
ango maixuak daude lanian
biar bezela ezita,
animan dauden lar danak kendu,
epiñi lorez jantzita,
oso gustora etorri giñan
pekatu danak utzita.

«AMA BIRJIÑA ITZIAR'KUA...»

Orain zenbait urte, Ama Birjiña Itziar'koaren iduria Madrilla eramán zuten berritzearren. Atzera ekarri zutenean, pesta aundiak egin zizkioten eta Zubeltzuk bertso auek paratu zituan. Beraren aotik jasoak ditugu.

- 1/ Ama Birjiña Itziarkua
sortu zitzaigun munduan
oraintxen dala milla urte ta
berreun bat inguruan,
orrela letu izan det bere
kondairako liburuan;
gorputzez ain da polita bañan
oso zartuta zeguan.

- 2/ Pena genduan ola eukitzia
gure Amatxo umilla,
animaz gazte egonagatik
gorputza zeukan debilla;
parroko jaunak zekien nun zan
berritutzalle abilla,
esku onetan jartzen zala ta
bialdu zuten Madrilla.

- 3/ Bestiak ere ez gendukian
ori egin nai-ezikan,
orrela gaizki zeguala ta
ondo jartzia baizikan;
egin zuenak ez badu artzen
kobratutzeko presikan,
asko kostia omen da bañan
ordainduko deu pozikan.
- 4/ Gure Amatxo izandu degu
emendikan apartian,
erdi negarrez eta tristuran
palta gendun bitartian;
ta ura gabe ezin etsi ta
danontzat zegon kaltian,
Amarik gabe danak umezurtz
iru bat illabetian.
- 5/ Periodiku eta radioz
zabaldu zan abixua,
gezurra ezin zeikian jarri
nola dan gauza pixua;
bere Semia, guztion Aita,
zeruan dagon Maixua,
lengo tokira ekarri digu
gure Amatxo gaixua.

6/ Madritik onuntz ekarri zuten
pranko biraje luzian,
sekula alako puntzio ederrak
Deba'n egiñak goizian;
arratsaldian bere kabira
allegatzeko pozian,
zeruan dauren aingerutxoak
dantzan ibilliko zian.

7/ Erri ta erbeste Itziarrera
asko ziran azalduak,
gure Amatxok altxatutzeko
bazitun zeñek elduak;
siñispena ta karidadia
oaindik ez daure galduak
bere lekuan jarri zanian
aiek ziraden txaluak!

8/ Ama Birjiña Itziar'kua
daukagu gere onduan,
eta gu ere saia gaitezen
agintzen digun moduan;
etsai gaiztuak artzen bagaitu
anima iya galduan,
lagun zaiguzu orain da beti
gure eriotzako orduan.

OMENALDIA

1959'ngo Garagarrillan, San Luis egunaren aurreko igandean, omenaldia egin zioten Zubeltzuri Itziar'ko luistarrak.

Bost bertsolari etorri ziran: Txapel, Uztapide, Basarri, Lizaso ta Artañola.

Meza ondoan saio polita egin zuten. Orduan kantatutako bertsoetatik bat, oso ezaguna da Gipuzkoa'n. Uztapidek bota zuan. Emen, Zubeltzuk berak esaten duan eran jarriko degu:

Jose Antonio nere laguna,
ia gogoratzen zazun:
ni Olaberri'n morroi negoen,
zu bizi ziñan Zubeltzu'n;
zuk sorotikan bertsoa bota,
nik bestetikan erantzun,
nik dakizkiten ederren oiek
zuri ikasiak nizkizun (1)

(1) Sebastian Salaberria'ri (Oriamendi, Aiete, Donostia) beste onela jaso nion bertso au:

Ni Olaberri'n izaten nintzan
eta zu berriz Zueltsu'n,
ez dakit garai artako gauzak
gogoratutzen zaizkizun;
mendi batetik zuk kantatu ta
nik bestetikan erantzun,
gaur dakizkiten onentxuenak
zuri ikasi nizkizun.

Bikaña bertsoa bai bertsolaritzaren aldetik eta bai gizatasunaren aldetik ere.

Egun artan lau bertso kantatu zituan Zubeltzuk. Gogoan ditu oraindik. Estrañakoa bazkalondoan era ontan:

Bost bertsolarik kantatu dute
izugarri kurioso,
oiek dakite kantu-lanari
zeiñ aldetatik eraso;
Artañola ta Txapel laguna
jarri zaizkit alimoso,
gañera berriz Uztapide ta
Basarri eta Lizaso,
ai zer ederki portatu diran,
danari eskerrik asko!

Luistarrari eskerrak ematearren, bertso au kantatu zuan bazkalostean:

Modu onetan ikusi dira
Itziar'ko jolastiak,
nonbait nai zuten umore onez
emen alkar ikustiak;
oiek egin dituzten jolasak
eta gañera txistiak,
ederki asko portatu dira
erriko mutil gaztiak.

Geroago, plazan, onela kantatu zuan:

Gure Jainkuak eman diguna
ainbesteko anaitasuna,
emen ekusi degu oraintxe
orrenbeste bat persona;
beti izandu deigula emen
pakia ta osasuna,
zerua eztakit zer izango dan,
auxen dek edertasuna!

Egun artan, lau bat erritako pelegri-
nazioak etorriak ziran Itziarrera. Ori za-
la-ta, onela kantatu zuan Zubeltzuk:

Alde batera pentsatutzen det:
nago burutik nastua;
plaza ontako edertasuna
au da ezin siñistua!
Asi Arrona, Aizarnazabal,
Aizarna eta Zestua,
Ama Birjiña bisitatzera
ekarri duten gustua,
ezta izango zeruan ere
ori zuekiñ aztua.

PELLO SAIKOLA BERTSOLARIA

PELLO SAIKOLA BERTSOLARIA

Pello Aranburu bertsolaria Arrua-be'ko Keixeta etxean jaio zan 1903'garren urteko Apirillaren 20'an.

Zazpi senide izan ziran: lau anai ta iru arreba. Gaur bi anai ta arreba bakarra bizi dira.

Pellok zazpi urte zituala, il zan aita. Orduan familia Orio'ko Saikola'ra aldatu zan. Orregatik, Pello Saikola esan oi diote bertsolari oni.

Saikola Orio ta Aginaga bitartean dago, Orio'tik iru bat kilometrora, kamio-bazterrean.

Bertsotarako griña betidanik izan du Pellok. Gaztetan Gaztelu bertsolariarekin egin oi zuan bertsotan. Gero bertso-paper-saltzalle bezela ibilli oi zan. Berak jarritako bertso-paperak ere baditu.

Oñati'n ere bizi izan da, ta orain Zestua'n bizi da.

Emen argitaratu baño len, bertsoai pasadatxo bat eman die, an da emen ikutu arin batzuk egiñaz.

Irakurlearen gogozko izango al dira bertsolari umil onen frutuak!

(1933)

BERTSO BERRIYAK

San Pedro'ko treñeruak sei bandera irabazi zituan Donostia'n segiran, 1927'-gn. urtetik 1932'gn. urtera bitarteko guziak.

Bañan 1933'garrenean, Orio'k irabazi zion. Estropada onezaz sei bertso-sail argitaratuak ditugu (1), ta oraingo onekin zazpi.


Zazpigarrengo au, Gaztelu eta Pello Saikolak, bien artean, egin zuten.

Pellok orain esan digunez, Gazteluren bertsoak, 1, 4, 5, 6, 7, 8, 10, 11, 13, 14, ta 15'garrena dira.

Ta bereak, berriz, 2, 3, 9, 12, 16, 17, 18, 19 ta 20'garrena ditu.

Doñua, Pellok berak kantatua da; ta magnetofonoz entzun eta paperean ezarri dutenak, Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain jaunak izan dira.

(1) Auspoa'ren 59'garren alea: Axentxio Txanka bertsolaria".



1/ Bi milla urte laister dirade
Kristo mundura jayorik,
iñori gaizki itzegiteko
ez daukat opiniyorik;
Oriyo'n orain arraun-lanian
badago mutill yayorik,
makalarentzat ez da izaten
bandera ta premiyorik.

2/ Lau milla duro iya dirutan,
seda fiñezko bandera,
Donostiya'tik ekarri eta
bastante kontentu gera;
San Pedro'tikan arrazoi txarrak
noiznai badatoz onera,
seta galanta badute baña
oiek ainbeste bagera.

3/ Oinbeste diru irabazita
nola ez gera poztuko?
Bañan etzaio galdu dubenai
piska batian aztuko;
olakorikan pasako zanik
askok etzuten usteko,
San Pedro'n eztô arraunlariyik
oriyotarrak austeko.

4/ Gipuzkua'tik bost giñan eta
beste bat Bizkaia'tikan,
arraun-lanian saiatu dira
danak oso gogotikan;
oriyotarrak ez giñan asko
estutzen oiengatikan,
bi egunetan lasai etorri
gera danen aurretikan.

5/ Bi kopa eder ekarri ditu
banderarekin batian,
ongi portatu geradelako
Donostiya'ko partian;
diruba pranko sartu da aurten,
erriyak ez du kaltian;
zuek ausitzen zalla izango da
beste amar bat urtian.

- 6/ Oriyo'kuak premiyo onena,
San Pedrotarrak urrena,
Ondarrabi'tik bi ziran eta
irugarrengo ta azkena;
Donostiya'ko *Amaika Bat'i*
eman zaio laugarrena,
ta Sestao'ko kuadrilla ori
gelditu da bosgarrena.
- 7/ Oraindik ere mutill pizkorrak
erri onetan badaude,
oien pruebak ikusi eta
danok arrituta gaude;
San Pedro'kuak Oriyo'rena
allegatzen eztirade,
orregatikan gure atzetik
oiek ibili dirade.
- 8/ Bei zar bat aurten jan omen dute
dana lanparoiz betia,
nola na'ezute klase orrekin
txalupa azkar jutia?
Estropa oitan artuba aña
izango dute botia,
ez dago ola osaturikan
esposatzeko dotia.

9/ San Pedrotarrak bandera baietz
egiten zuten trabesa,
kuadrilla ori sosegatutzen
etzegon oso erreza;
diruba bota kupira gabe
oso estu eta presa,
inguru ortan galdu dituzte
makiña bat interesa.

10/ Arraunlariya obia pranko
badago itxas-ertzian
danen aurretik etorri biar
onenak izan bazian;
Arrillaga oi guziyen aita
gelditu zaigu atzian,
iñoiz añeko konsuelorik
etzan izango etxian.

11/ Jokuak beti berekin dauka
galdutzeko arriskua,
makiñat diru partituba da
ori besteren eskuâ;
orain or dabil gelditu gabe
arraskatubaz kaskua,
Arrillaga'ri pasatu zaio
uste etzuben txaskua.

12/ Beren ustetan bandera zeuken
Errera'ño eramana,
andik aurrera kostat zaiote,
bazuten naikua lana;
alper gaiztuan eztute ibili
oiek oinbeste afana,
bein irabazi baño lenago
ez du jo biar kanpana.

13/ Arrillaga ta bere koadrilla
geldituba da seriyo,
aurtengo ontan erri-aldia
ez dute asko gora iyo;
beren ustetan irabazteko
zeuden izugarri fiyo,
bandera pozik emango zuten
juan ezpalitz Oriyo.

14/ San Pedrotarrak usteko zuten
zirala berak bakarrak,
bañan atera-azi dizkagu
oiei abotik aparrak;
ai, Arrillaga, goguan dauzkau
guk zure arrazoi txarrak,
por si acaso aitu al dira
zuen txuleten indarrak?

15/ Ai, Arrillaga, ibili dezu
fanfarroikeia ugari,
bueltak onela etortzen zaizka
len arro dabillenari;
obeditzia askoz ez obe
geiagokua danari,
leku onian geldituba da
Aita San Pedro'ku ori.

16/ Oriyotarrak irabazita
dauzkagun konsueluak,
arraun-lanian geradelako
oipañon abillaguak; (2)
Donosti ortan jo dizkigute
berebiziko txaluak,
oien txuletak ainbeste indar
badu emengo taluak.

17/ Oriyo'n dagon aurrelariya
Inazio Sarasua,
onek arraunai ematen diyo
sekulako tirazua;
ta gañerako koadrilla ere
gaztia ta indartsua,
biba Domingo, patroï maitia,
zu zera oien maisua!

(2) oipañon = oik bañon.

18/ Oena danak irabazten du,
eztu baliyo tirriyak,
aldez aurretik izan dirade
afana izugarriyak;
orain ederki umildu dira
lengo arrunkalariyak,
zer diran ondo probatu ditu
Pasai'ko arraunlariyak.

19/ Oriyo ontan txiki ta aundi
ogei banderaño dira,
olako pillik ezin ekarri
makalak izan balira;
ta urtetikan urtera beti
añaditutzen ai dira,
obek lan txarrak emango'ituzte
berriz e sano badira.

20/ Bertso berriyak orra ipiñi
arraunlariya oieri,
merezi ere badituztela
iruditutzen zait neri;
bañan eskerrak ematen zaizke
irabazten dutenairi,
oso ederki egin dute ta
gora Oriyotarrairi! (3)

(3) Bertso-papera: "Elustondo — Zarauz", Grego-
ria Ibargoyen, Orio.

(1935)

BERTSO BERRIAK

Bertso auek Aginaga'ko mixio bati jarriak dira. «Elustondo — Zarautz» moldiztegian argitaratu ziran. Aginaga'ko Lastaola'n jaso nuan bertso-papera.

Lenengo bertsoan onela esaten da:

Itz neurtu batzuk ateratzeko
esan diyote Pellori...

Liburu au prestatzerakoan, Pello ori, bera ote zan galdetu genion Pello Saikolari, ta baietz erantzun zigun.

Ta bertso-paperak saltzen ere, bera ibilli omen zan Aginaga'n eta inguruko errietan.

- 1/ Itz neurtu batzuk ateratzeko
esan diyote Pellori,
zorioneko Agiñaga'ko
Mixiyo santu oieri;
gure Jainkuak ematen badit
baldin ainbeste memori,
pozikan asko kunplituko det
fedo santuko itz ori.

- 2/ Ongi merezi dituztelako
dijuaz bertso berriyak,
gusto dubenak entzun bezate,
ortako'ida belarriyak;
bizi artian izan ditezen
kontu goguangarriyak,
milla beatziregun ogei ta
amabostian jarriyak.
- 3/ Apaiz jaun bat da Don Migel eta
laguna Aita Basilio,
sermoi ederrak egin dituzte
oso umil da seriyo;
Jaungoikoaren seme leialak
ez dute gutxi baliyo,
jende guziya konbertitu da
oiek dirala meriyo.
- 4/ Apirillaren zazpiyan asi
dira misiyo santubak,
aste guziya igaro eta
amalauban bukatubak;
bitarte ortan ez dira oiek
oso gutxi nekatubak,
gure animak zeruratzeko
oik dira pulamentubak.

- 5/ Sei t'erdiyetan lendabiziko
meza egiten zan asi,
bitarte ortan al dan guziya
erregutubaz Jesusi;
itzaldi onak entzunak ez du
despreziyoric merezi,
pekatutikan zer datorkigun
ederki degu ikasi.
- 6/ Funtziyo ori asten zan berriz
arratsaldeko lauretan,
errosariyo santuba esan,
gero kantatu benetan;
mixiyo oitan izana orain
iñor ez gaude penetan,
pake santuba geldituba da
Agiñâ alde onetan.
- 7/ Oien sermoiak adituzeko
nork ez du izango gustuba?
Bata bezela bestia ere
predikadore justuba;
zeru artara juateko nunbait
dagola bire istuba,
nork bere anima salbatzen duna
betiko aberastuba.

- 8/ Jesus maitiak ekarri ditu
apaiz jaun oiek Agiñâ,
ejenplo onak danori ematen
saiatzeko alegiña;
inguru ontan billatu dute
oso jende atsegiña,
obe genduke santa sekulan
okertuko ez bagiña.
- 9/ Batak bezela bestiak ere
egiya pranko esan du,
oik badakite gure okerra
nundikan nora zuzendu;
bire txar danak alde bat utzi
eta onari lagundu,
obe genduke kristau guziyak
ori egingo bagendu.
- 10/ Biyak ez dira asko ixildu
naiz goiz eta arratsalde,
ejenplo onak eman dituzte
pekatariyaren alde;
tamañ orretan saiatu eta
ez leizke utzi debalde,
oiek zer moduz portatu diran
Agiñâ aldian galde.

- 11/ Oiek diyote konfesatzera bildurrik gabe juateko, lendabizitik biar bezela esamiña egiteko; damutasuna artutzen badu denbora piska bateko, gure Jainkuak alakorikan ez dula asko maiteko.
- 12/ Kurpitutikan esan dituzte oiek egiyak jatorrak, ondorenian etorri gabe berebiziko negarrak; biar bezela ordaindutzeko bata bestiaren zorrak, zeru artara jua nai badu ez du baliyo gezurrak.
- 13/ Kontu aundiya edukitzeko diyote konfesiyan, ondorenian ibilli gabe bate murmuraziyan; penitentziya zuzen kunplitu guztizko deboziyan, beti-betiko gelditu dedin bere satisfaziyan.

- 14/ Zorioneko geure mixiyo
santu relijiyosyak,
jakiñen gañên jarri dituzte
batez ere gurasyak;
alde batera utzi ditzagun
gogo txar eta pausyak,
orixen bera eskatzen digu
gure Jaun amorosyak.
- 15/ Jendia pranko izandu da, bai,
Agiñaga'ko elizan,
dana ederki jarraitu dute
persona formalen gisan;
mixiyo oiek geren animen
kaltian ez dira izan,
Jesusengana sarritan goazen,
ortxe daukagu kalizan. (1)
- 16/ Ikusten degu Jesus maitia
kaliza ortan dagola,
pekatariyak salbatziarren
ixuri zuben odola;
zenbat naigabe eraman zuban
ez leike neurtu iñola,
aurrera ere guziyokgatik
erruki zaitez orrela.

(1) Bertso-paperean *elizan* dago; poto beraz. Pe-
llok esan digu *kalizan* bear duala emen.

17/ Fede onian kunplitu degu
Jubiliyoko urtia,
Jesus da bere Konpañikuak
oso apalak baitia;
oiek nai dute anima garbi
guziyok eramatia,
Aita San Pedrok iriki gaitzan
zeruetako atia.

18/ Mixiolari bikañak ditu
Don Juan jaunak juntatu,
danari esker onak emanda
onekin biet bukatu;
bedeinkaziyo santuben bidez
pekatu guzik barkatu,
ta azkenian Jauna artuta
gelditu gera kontentu.

SAN JUAN GAUEAN

Zenbait urtetan koplari ibilli zan Pello San Juan gauean. Kuadrilla amalau bat mutillek osatzen zuten da baserriz-base-
rri ibiltzen ziran.

Asierakoa lengo kopla zar au kanta-
tzen zuten etxe guzietan:

Bedeinkatua ta alabatua
da Sakramentu Santua,
pekatuaren mantxarik gabe
zeña dan kontzebitua.

Au ere lengo kopla zarra da:

Bere laguntzaz kantatu nai det
Aita San Juanen bizitza,
santu aundi au goratu naian
egiñalian gabiltza.

Pellok, orduan berak asmatu ta kan-
tatutakoak, onako kopla auek eman diz-
kigu:

Gure animak zeruratzeko
ori da pulamentuba:
Aita San Juanek ipiñi zuan
geren bataio santuba.

Aita San Juan santu aundiya,
zerura xuxen juana,
lendabiziko bataiatu zun
gure Jesukristo jauna.

Anima asko leku txarrera
lenago ere oi zan juan,
etzan zeruan iñor sartuko
izan ezpalitz San Juan.

Obispo jaunak ipiñi ditu
artaldietan artzaiak,
gure animak artu ez ditzan
bere eskutan etsaiak.

Orduan ere jende guziya
etzan fede onekua:
emakume bat zala meriyo
kendu ziyoten lepua.

Basamortuan pasa zituan
berrogei egun da gauak,
gaur askok baño obetuago
betetzen zitun barauak.

Aita San Juan maitagarriyai
ezin billatu mantxikan,
barauak ondo betetzen zitun,
etzuan gure antzikan.

Aita San Juan santu aundiya,
zeru erdiyan dagoena,
gero penikan ez du izango
bera serbitzen duena.

Beste au ere, koplá zarra da:

Nere lagunak aldamenetik
asi dirade kejatzen:
asiko banaiz asi nadilla
nagusi jauna koplázen.

Ta ori kantatu ta onela jarraitzen zuan
Pellok bere burutik:

Orañ arteko denbora dauka
oso ederki pasia,
famiya ondo edukatuta
mundu onetan bizi'a.

Andria ere oso leiala,
guztiz ona eta fiña,
berakin baten urte askotan
ongi biziko bazifia!

Ta gero etxeko dama gazteak koplutzen
zitian:

Neskatxa onek ematen dizkit
makiñatxo bat inbiri,
zeru goitikan etorritako
aingerutxua diruri.

Ontâ ezkerro igualtsu da ta
esango dizut zerorri:
nobiyorikan falta badezu
kuadrilla ontara etorri.

Lenago ere bagiñakigu
oso neskatx fiña zala,
gure Jainkuak urte askotan
ondo konserba dezala.

Etxe ontako dama gaztiak
izena dauka Euxebi,
berak bakarrik baliyo ditu
zenbaitek bezelako bi.

Kuadrilla eder bat emen gabilta
umorian da pakian,
oitura eder au ez da galduko
gu bizi geran artian.

Kristo mundura jaio zanetik
oraindano bitartian,
oitura onek segitutzen du
iya bi milla urtian.

Santu aundi au ezergatikan
ez det utzi nai bajuan,
egun au ez zelebratzezkeroz
zertako degu San Juan?

Beste au Gaztelurena edo bere anaia-
rena da:

Ama Birjiñak agindu diyo
aingeru San Gabrieli
guri biriak erakusteko
nundikan nora ibili. (1)

Ta ori ere kantatuta, onela jarraitzen
zuan Pellok:

Bate gezurrik gabetanikan
esan biar det egiya:
gau-illunpian izaten degu
inoiz zerbaiten premiya.

(1) Kopla au *Auspoa*'ren 61'gn. alean argitaratu
zan, 25'gn. orri-aldean.

Ontâ ezkeru igualtsu da ta
jotzera nua kanpanak:
limosna on bat eman lezake
kopria bete daukanak.

Dударик gabe dirua pranko
euki biaute koprian,
limosna on bat emanagatik
ezta ustuko kolpian.

Ate ondora etorri gera
biyotzetiyen poztuta,
juan dan urteko limosna oraindik
guk ez daukagu aztuta.

Etxe ontako borondatiak
ez du, ez, gutxi baliyo,
«Gora San Juan!» otsegiñ eta
egingo al degu ariyo?

Danari esker onak emanda
oraiñ biar degu juan,
nere mutillak, danok batian
otsegin: «Gora San Juan!»

(1941)

BERTSO BERRIYAK

Bertso auek «*Imp. Macazaga. — Rentería*»-n argitaratu ziran. Egillearen izena ez da bertso-paperean ageri. Etxean geneukan izenik gabeko paperen artean. Pellok, ordea, berak jarriak dirala esan digu. Bertso-paper ori, Orioko Gregoria Ibarгойen zanaren eskutik jaso genduan.

- 1/ Milla urte ta bederatzireun
berrogei eta batian,
kanta batzuek jartzera nua
guztizko borondatian;
arraunlari onak oraiñ badaude
Ondarrabi'ko partian,
saiatu dira bandera ori
erriyan sartu artian.

2/ Donosti'n jarri digutelako
diru-pill izugarriya,
arraunlariyak ondratu dute
gure Kosta Kantabriya;
oi ta bi milla pezeta eta (1)
bandera gustagarriya,
aurten nolana ezta gelditu
Ondarrabi'ko erriya.

3/ Estropâ oien asiera zan
Agorrillaren zazpiyan,
oiek ikusten jendia franko
izan gera Donostiya'n;
norberegatik saiatu dira
danak egiñal guztiyan,
al dan lenena sartu dirade
bakoitza beren tokiyan.

4/ Amalabian beren txalupa
alkarri zizkan trukatu,
San Juandarrak lendabiziko
allegatzia tokatu;
jendiai gusto eman diyote,
ez dira gaizki portatu,
ez da estropâ ederragorik
aspaldi ontan jokatu.

(1) Bertso-paperean: *ogei*.

5/ Amaika t'erdik jo zutenian
laister ein zuten sayua,
arrexkatubaz zeñentzat izan
lenbiziko premiyua;
arraunlariyak izandu dute
pranko istimaziyua
publiko dana aiei txaloka,
orko animaziyua!

6/ Ogei minutu pasian juak
ziraden beren sarrera,
makalarenak atzera eta
abillarenak aurrera;
alkar neurtzeko etziran jua
Kontxa'ra leku txarrera,
segundo batez Ondarrabiya'k
irabazi du bandera.

7/ Donosti (y) ontan bete ditugu
norbere eginkizunak,
arraunlariyak alkar probatzen
ortxen dirade izanak;
toki askotan egonagatik
indar aundiko gizonak,
ipar aldetik azaldu dira
aurten danetan onenak.

- 8/ Sei txalopa or giñan guztiyak,
Gipuzkoa'tik bost-tia,
alkarren kontra peliatuak,
Bizkaia'kua bestia;
esperantz ona ekarri arren
Sestao'tik Donostiâ,
oi ta bi milla pezta nolana
irabazitzen eztia.
- 9/ Kuadrilla ori prestatuba da
patroiarekin ondraru,
bañan ez dute Donostiya'tik
eraman nai aña diru;
apusturako kontua ezta
izaten oso seguru,
galdu dubenak pazientziya
artzia askoz obe du.
- 10/ Diferentziya dago kuadrillan
batetikan besterena,
indarra eta abildadia
azkar joateko onena;
nai izan arren iritxi eziñ,
orrek ematen du pena,
banderik gabe norbaitek ere
gelditu biar azkena.

11/ Bizkai aldetik etorri ziran
bastante mutill bapua,
fanfarroi-antzak mingañez baño
egin zituzten naikuak;
pruebetan zerbait luzitu arren
lan txarrak ditu jokuak,
aurtengo ontan makiña bati
oker jo diyo kukuak.

12/ Estropâ oiek ikusitzeko
deseoz zegon jendia,
batzuek bian gelditu ziran,
besteak iyo omen dia;
egun oietan billet'ederrak
esku aldatubak dia,
galdu dutenak umill askorik
etxe aldera joan dia.

13/ Arraunlariyak ipiñi dute
Donostiya'n naiko festa,
jende-puska bat inguratzeko
puntziyo oberik ezta;
irurogei bat milla persona
urian ziraden presta,
apenas iñork oiengatikan
egin dubenik protesta.

14/ Ondra aundiyak artu dituzte
patroi ta bere kuadrillak,
alkar neurtuta ezagutzen da
aber zein diran abillak ;
mokadu onak janda ez daude
gorputzatican debillak,
zer ziradela uste zenduten
Ondarrabi'ko mutillak?

15/ Kontxa orretan azaldu dira
mutilla kuriyosuk,
urte askuan lagun deiela
gure Jaun amorosuk;
gorrotu gabe bizi gaitezen
erbesteko ta aзуak,
estropâ ori dala meriyo
orra ipiñi bertsuak.

TOLOSA'N

Egun batez, oi zuan bezela, Pello Tolosa'ra joan zan, bertso-paper saltzera.

Ara allegatu bezin laister, Ayuntamentura joan zan, saltzeko baimena eskatzera.

An zala, bere adiskide bat azaldu zan: Anjel Arruti, Orio'koa, erri ontako Ayuntamentukoa izana.

Pello an ikusi zuanean, zertan sartua zan ez baitzekian, ura anparatu nairik asi zan, bere ezaguna zala ta abar esanaz.

Pellok, laguntzarik bear ez bazuan ere, asko estimatu zuan borondate ori. Ta bueltakoan bertso auek jarri zituan. Pellok berak eskribitutako orri batzuetatik kopiatu ditugu:

- 1/ Gizon prestu bat inguratu ta ala egin dit eskeintza, bertso batzuek ateratzeko iñola al baldin balitza; ez nuke naiko projimuakin ezergatik gaizki mintza, pozikan asko kunplituko det berak emandako itza.

2/ Tolosa'n ni bein tokatu nitzan
Anjel Arruti jaunakiñ;
Sarikola'tik joan nitzaden
nere kanta-papelakiñ,
espeziyuan sillatu eta
kantatzeko asmuakiñ;
lagundutzeko prestu zegoan
borondate onarekiñ.

3/ Zorionian joan nitzaden
Tolosâ egun batian,
kanta-papelak zabaldu eta
ibili nitzan pakian;
libersiyua pasatutzia
ezta iñoren kaltian,
nik onelaxe jarraituko det
Jainkuak nai dun artian.

4/ Leku txarrera ez nitzan juan
kanta-papelak saltzera,
Tolosa toki ona zala nik
len e banun aditzera;
gezurra esanda ez nua iñor
batere engañatzera,
egun ederra pasatu eta
etorri nitzan etxera.

- 5/ Ederki asko ezagutzen det
Anjelen borondatia,
zu bezelako gizon jatorrak
oso banaka baitia;
esperatzen det egun batian
bisita bat egitia,
deseo dizu urte askotan
Pellok ondo izatia.
- 6/ Anjel Arruti beti izan da
gizon leiala ta piña,
orregatikan anparatzera
nua nere alegiña;
gauza ori nik akordatzian
artzen dedan atsegiña,
santa sekulan ez da aztutzen
lenago ondo egiña.
- 7/ Tolosa ontan egon biaute
oso gizona prestuak,
or egindako laguntzarekin
ez gaude bate aztuak;
mundu onetan izaten ditu
bakoitzak bere gustuak,
nik pozik asko ordaindu nitun
an egindako gastuak.

TELESFORO ANAIARI KARTA

Pelloc karta au bialdu zion bertsoan bere anai Telesforori. Au Ameriketara joana zan, Argentina'ra. Bertan illa da. Bertso geiago ere baziran, bañan orain iru auetzaz bakarrik oroitu da Pello.

- 1/ Ai nere biotzeko
anai Telesforo,
nik zu ikusitzia
laister det espero;
bisita bat nai luke
egin onezkero,
orrenbeste urte or
pasatu ezkerro.

- 2/ Aspaldiyan ez degu
guk alkar ikusi,
guregandik aparte
nola zeran bizi;
bisita bat eitia
ez al deu merezi?
Nai dezunian atoz
emazte ta guzi.

3/ Bi barrika sagardo
badauzkat etxian,
ai zer trago ederrak
andik etortzian,
maite zaitutelako
zuri biotzian...
Diru asko ekarri
zerekin poltsian.

EZTAIETAN

Pelloren lengusu bat esposatzera zi-
joan. Eztaietara gonbiratu zuten. Ori za-
la-ta, lau bertso auek bere artean pentsa-
tu ta kuadernotxo batean apuntatuak zi-
tuan. Pello bertsolaria izaki, eztaietara
bear baño egun batzuk leenago joan zan
aurreneko aldiz...

- 1/ Oriyo aldetik bodetarako
ziraden gonbiratu ta
Sarikola'tik Beña ortara
nitzaden arrimatuta;
artian nunbait bere papelak
etziran preparatuta,
umill askorik juan nitzaden
berriz bueltan jiratuta.

2/ Aizazu, Martin, gauza bat nua
oraiñ zuri galdetzera:
igez gu nola ibilli giñan
akordatutzen al zera?
Gu ez guazti oitura eder au
ezergatikan galtzera,
pozikan nator nere lengusu
maitiak bisitatzera.

3/ Andregaigana biria zuan
gazterikan ikasita,
danak mutilzar gelditzerikan
ez genduan merezi-ta;
Beña'ko alabarekin ondo
berak nai luke bizi ta
oraiñ ez dauka bate penikan
famili ona azita.

4/ Mutilzar gelditutzen dirade
gu bezelako tontuak,
ez ditûlako ondo betetzen,
ez, amar mandamentuak;
pralle ta monjaz danak beteta
jarri dira konbentuak,
zerura nola juango geran
orain atera kontuak.

«ONDRAMENTIONIAN ASTERA NUA...»

Lau bertso auek, eskuz idatzitako orri batetik kopiatu ditugu; Pellok berak eman zigun orri ori. Dударik gabe, bazkalondo batean kantatuko zituan:

- 1/ Ondramentionian aстера nua bertso batzuek kantatzen, nere aiskire maitagarriak, jarri zaitezte aditzen; orain ixillik egoterikan barrenak ez dit agintzen, aurrera ere alkar serbituz olaxe saia gaitezen.

- 2/ Gorputzai kalte egin-betanik ar zagun komeni dana, mokadu onak jarri ezkeron izaten da zeñek jana; tripa txar onek ondo betetzen ematen du naiko lana, bazkari onek egin deiela danai probetxu on bana.

3/ Bate gezurrik gabetanikan
esango ditut egiyak,
tamañ onetan laguntzen badit
baldin nere memoriyak:
zeñek ez ditu istimatuko
olako nekazariyak?
Urte askotan lagun deiela
danai gure Zaindariyak.

4/ Nere artian jarrita nago
orain gauza bat pentsatzen,
alde batera ez dago zalla
gauza ori konprenditzen:
toki onetik kanpora ezta
nolanari ateratzen,
onera ekarri gaituzte baño
kostako zaie biraltzen.

BERTSO BERRIAK
GAZTIEN KONTSOLAGARRIAK

(Oñati'n, 1967)

1/ Bi milla urte laister
Kristo jaio zala,
gu salbatzeko uste't
zerbait bear zala;
badirudi etsaiak
kontra dabiltzala,
arrisku danetatik
aparta gaitzala.

2/ Esplikatu nai nuke
Kristoren dotriña,
zerutik laun zaiguzu,
Maria Birjiña;
lendabizitik egin
ondo esamiña,
aren ondora danok
joango bagiña.

- 3/ Gure Salbatzalliak
umillak nai ditu,
aren maitetasunik
beñere ezin aitu;
amar mandamentuak
kunplitzen baditu,
zeru eder artara
eramango gaitu.
- 4/ Etsaiak lotuzeko
an dauka kattia,
deskuidatzen danentzat
beretzat kaltia;
nai badegu betiko
zerura joatia,
obia degu askoz
prestu egotia.
- 5/ Au da lagun arteko
animaziua,
bertsolariak dauka
satisfaziua;
ibilli gabetanik
murmuraziua,
bete zagun nork bere
obligaziua.

6/ Goguak eman eta
asi naiz kantetan,
gauza bat esatera
banua benetan:
jaunak, serbitzen nabil
agustiñoetan,
oso kontentu nago
komentu onetan.

7/ Egon zaitezte piskat
auxe entzun arte:
uste det daukatela
franko borondate,
Pellori alegiñak
egiten dizkate,
agustiñoak asko
laguntzen dirate.

8/ Ezin burutu nuben
ardo txar orrekin,
deskuidatu ezkerro
odolak irakin;
orain ondo konpontzen
gera alkarrekin,
mosto eta limoia
eta urarekin.

- 9/ Konprenditua dago
auxen adituta,
gezurak kontatzera
enaiz abituta:
zurrut batzuk egiñaz
tabernan sartuta,
gero eraman ezin
pardela artuta.
- 10/ Ortik etortzen dira
naigabe ugari,
beti ola ibiltzia
gezurra diruri;
Jaunak zertako eman
ainbeste memori?
Kontu egin zaiogun
geren buruari.
- 11/ Erremedio billa
sendagaiengana,
gaxuak sendatutzen
dauka naiko lana;
gaztetatik asita
geiegi edana,
zartu baño lenago
trastornatu dana.

12/ Norbaitek badaduka
abillidadia
denak gobernatzeko
guk baño obia:
gure Jesus maitia,
mantxarik gabia,
zeru eta lurraren
guzien jabia.

13/ Ematera nijoa
nere albistia,
onera etorrita
ez nago tristia;
bata da Bitor eta
Jabi da bestia,
kantore obiak asko
izango ezia.

14/ Aurrian prestu dago
gizona noblia,
ogiak ez lezake
mantendu obia;
nai dunak egon, an du
rezibidoria,
gora Rafael jauna
bisitadoria!

15/ Ara bertso berriak
Pelloren partetik,
alegiñak ein biar
nork bere aldetik;
gauza ori ezin zait
kendu nei burutik;
ejenplo onak emanda
juan nai det mundutik.

16/ Amaseigarrenakin
nai nuke bukatu;
Arrua'n jaiua naiz,
ez leike ukatu;
Oñati ontan ditut
lau urte pasatu;
gaizki esanik bada
faborez barkatu. (1)

(1) Multikopistaz idatzitako orri batetik artutako bertsoak.

BERTSO BERRIAK

Beña baserria, Arrua'ko Ibiñarrieta balleran dago. Angoak lengusuak ditu Pellok. Aien ama zana ta onen aita zana anai-arrebak. Amabi bertsoko jarri-aldi au eskeñi zien, orain urte batzuk, Pellok. *Zeruko Argia'n*, 1967'ngo Garagarrillaren 18'an argitaratu ziran.

- 1/ Famili onek nai luke orain
Pello astia kantari,
soñua eta bertsolariak
gustatzen zaizke askori;
jan-edan ondo egindakoan
mugitzen gera ugari,
Jaun Zerukoak egun on bana
eman deigula denori.

- 2/ Aurten bost urte egin genduan
guk azkeneko bixita,
orain artian egondua naiz
luze dala iritzita;
egun au ez da nai baño leno
guregana iritxita,
izugarrizko poza artzen det
danok ondo ikusita.
- 3/ Aingeruren bat badirudi gaur
sartu zaigula etxian,
nola ez gera kontsolatuko
gauz ori gogoratzian?
Ezeren paltik ez da izaten
beñ onera etortzian,
lenago ere bagenekigun
Beña'tar auek zer zian.
- 4/ Broma eder bat pasatutzeko
au paraje egokia,
istimatzeko dala uste det
au bezelako tokia;
gure Jainkoak bein eman zigun
ontarako memoria,
aita zana zan dultziñerua,
ni berriz bertsolaria.

5/ Ia goguan artzen dezuten
oraingo Pellon esana:
zazpi senide mantendutzeko
saiatu biar al zana;
zeru erdian gerta dedilla
antxen gure aita zana,
majiñatxo bat neska ta mutil
dantzatu eta il zana.

6/ Dibertsia pasatutzia
ez da iñoren kaltian,
al zan guzia saiatutzen zan
bizi izan zan artian;
gure Jainkoak eraman zuan
mundutik pake-pakian,
orain gozaten ederki dago
aingeruekin batian.

7/ Ama zana ere beti izan zan
langilla ona ta fiña,
ejenplo onak guri ematen
saiatzen zan alegiña;
orain ez dauka bate penikan
lenago ondo egiña,
naiago luke famili dana
antxen bilduko bagiña.

8/ Gure Jainkuak bein eman zigun
bertsuetako grazia,
ni Arrua'ko naturala naiz,
bertan jaio ta azia;
Beña aldera bidia nago
aspalditik ikasia,
gora emengo nagusi jaun da
bere famili guzia!

9/ Santa Krutz jaiak zelebratzeko
artu genduan idia,
Ibaña-berri alde ontara
ikasirikan bidia;
makiña batek norberegatik
egin du karidadia,
bizi artian etzait aztuko
Arru-aldeko jendia.

10/ Erromerira inguratzen da
iñoiz jendia ugari,
dibertitzia gustatzen zaio
batez ere gazteari;
noiz etxeratu ez dakitela
soñua jo ta dantzari,
amari baño naiago dute
kaso egin mutillari.

11/ Senargai ona topatutzeko
egiten dute promesa,
Santo Kristoren aurrera joan
ta gero eskeñi meza;
kotxe ta guzti pasiatzeko,
ez da amets aldrebesa,
mutill ona ta millonaiua
ezta billatzen errex.

12/ Au ere orain esan biar det
amabigarren bertsuan,
danakin ondo partitu nai det
ontara naizen kasuan:
gure Jainkoak nai duen arte
guazen umore gozuan,
nik onelaxe jarraituko det
nere bizitza osuan.

DOZENATXO BAT BERTSO

1/ Dozenatxo bat bertso jartzeko
orain artu det abia,
gure Jainkoak ematen badit
ontarako memoria;
Arrua'n jaio, Oñati'n bizi
da Pello bertsolaria,
danok pakian bizi izatea
gauza istimagarria.

2/ Esan biar det nola diraden
edariaren kontuak,
urte batzuek igaro eta
gaude eskarmentatuak;
danak ez dute ondo betetzen,
ez, amar mandamentuak,
amaika anima norbere faltaz
badirade ondatuak.

- 3/ Edari onek ekartzen ditu
naigabe izugarriak,
joan daneko aspaldi ontan
ala gaude igarriak;
gauza guziak mundu onetan
dauzkate beren neurriak,
baldin okertzen danak ikusi
biar istillu gorriak.
- 4/ Zurrut batzuek egindakoa
geienak mugitzen gera,
estrapuzua eginda laister
igual erori lurrera;
kargamentua geitxo artuta
gero ezin jun aurrera,
diru guziak gastatu eta
norberetzako galera.
- 5/ Geren buruai ondo beiratu
biar diogu aurrena,
norbere faltak besteri bota,
au da gauzarik txarrena;
kunplitu zagun bataio santun
artu genduen ordena,
gero betiko nai baldin badeu
sartu zeruan barrena.

- 6/ Alkol txar onek azkenerako
ekartzen dituen lanak,
konsideratu dezake ondo
burua sano daukanak;
zenbaitentzako alperrik dira
aita ta amaren esanak,
atarramentu onikan eztu
neurritik pasatzen danak.
- 7/ Ejenplo onak ematen nabil
nere lagunen artian,
bertsolaririk ezta faltatzen
zurrut batzuek eitian;
bein txintxotuko baldin bagiña
obe egunen batian,
norbere obrak azaldu biar
Josafat'era juatian.
- 8/ Mundu onetan kristau guziak
pekatariak gerade,
etsai gaiztoak inpernutikan
beti zirikatzen daude;
bide txarretik gauza onikan
ezta etortzen beñere,
obia degu kontuz ibilli
Luziferrena joan gabe.

9/ Neroni ere enaiz izandu
mundu onetan santua,
askoren gisa gustatu izan zait
xurruta eta kantua;
bazter guziak endredatutzen,
au ez al da pekatua?
Gure Jainkoak, nai baldin badu,
badauka zer barkatua!

10/ Otoitz onaren bitartez gure
arreta aundiarekin,
Jaungoikoagan urreratuaz
borondate onarekin,
geren biotzak indartu naian
beraren graziarekin,
orretarako ondo konpondu
biar degu alkarrekin.

11/ Alde batera ez negon lasai
bertsuak jarri artian,
saiatutzia ez al da obe
euskaldunaren tartian?
Uste gutxinen beste mundura
goaz istante batian,
edozein moduz ez da sartuko
San Pedroren giltza-pian.

12/ Jesukristoren dotriña gaude
aspalditik ikasiak,
osasun ona daukagu eta
berari eman graziak;
alde batera utzi ditzagun
ibillera itxusiak,
beste bat arte, ondo-ondo bizi,
agur, aiskide guziak! (1)

(1) Bertso auek, multikopistaz idatzitako orri batetik ditugu. Dudarik gabe, orri ori Oñati'ko agustinoetan egin zuten.

Zeruko Argia, 1968/V/26: Aldaketak: 2/5: ezin beterik ibiltzen gera; 2/6: gu amar mandamentuak; 3/1: onak; 3/4: igerriak; 3/7: okertzen danak ikusi bear; 3/8: ditu istillu gorriak; 5/1: Geren buruei ondo begira; 5/2: bear diegu aurrena; 5/5: kunpli dezagun bataio santuz; 5/7: nai baldin bada; 6/3: konsideratu dezala ondo; 7/4: zurrut batzuk egiatan; 7/8: Josefet'era jutian; 8/8: Luzifer-gana jun gabe; 9/3: gisan; 10/2: arreta aundienakin; 10/3: Jaungoikoagan aurreratuaz; 10/5: geure biotzak; 11/5: uste gutxiñez; 12/8: agur lagun-zar guziak!

La Voz de España'n, 1968/V/28'an, auetako lau bertso jarri zituan Basarrik, 2, 4, 6 ta 9'garrena, komentario polit batzuk erantsirik.

GAURKO NESKATILLAK

Lenengo bertsoa «Zeruko Argia» aldizkarian agertu omen zan, sail batean. Ezin arkitu izan degu zein zenbakitan zan ori. Pellok segira eman zion, beste amaika bertso erantsiaz.

1/ Moda berrian jantzi
gaurko neskatillak,
tontoak engañatzen
bastante abillak;
soñeko motzak jantzi,
bistan pantorrillak,
petxuaren gañian
oien lore-pillak;
txoraturik dabilta
oiekin mutillak.

2/ Ezkontzeko gogua
edukigatikan,
ez dute baserrira
jun nai kaletikan;
apaindutzen saiatzen
dira gogotikan,
ederki ikasiyak
daude gramatikan,
baña ezta izango
neskazar-paltikan.

3/ Pintatu eta jantzi
nai duten bezela,
ez lira ibiliko
orrela bestela;
dagon fiñena erosi
dendatikan tela,
ez dira aberastuko
martxa ortan bela,
San Antonioi zertan
ipiñi kandela?

4/ Pozik artuko luteke
senargai on bana,
beren burua apaintzen
dauke naiko lana;
libertituaz besten
kontura al dana,
nekatu gabe jan nai,
ori al da plana?
Kontuz jutia obe
olakuangana!

5/ Erromerira juten
dira apainduta,
garaiz etorritzeko
amak aginduta;
ez dira ikaritzen
gabaz illunduta,
koaje aundiyakin
mutillai elduta,
gazte jendeak ori
nai izaten du ta.

6/ Jaungoikoaren legiak
au eztu agintzen:
festara joan eta
mutillak tentatzen;
josten baño obeto
dakite dantzatzen,
Angelus juagatik
ez dira kejatzen;
gurasuak etxian
beti ernegatzen.

7/ Lengo guraso zarrak
aspaldi il zian,
errespetoz jantzita
ibilitzen zian;
ejenplo onak emanda
mundutik joan zian;
oraiñ bezela etziran
ibiltzen baltsian,
musu batzuk emanaz
noizik bakoitzian.

8/ Serafiñaz jantzita
erregiñan gisan,
erregutzen diote
Jaunari elizan;
senargai aberatsa
nai luteke izan;
«Etxe onekua naiz!»
mutillari esan,
bizi-modu ederra
gero pasa dezan.

- 9/ Tranpa ta maleziya
badauke ugari,
ez kasorik egin nai
aita ta amari,
kariñua artuta
bên nobiyuari;
olakuak gustatzen
zaizte mutillari:
«Neretzako baziña
gazte eder ori!»
- 10/ Monja jun baño naio
luteke ezkondu;
koziñan da josten e
ikasi bear du;
batzuek akordatzen
dirade berandu,
deskuidatutzen danak
gero pagatzen du;
kristau fiñak batekin
tratatu obe du.
- 11/ Mutil bana artuta
festatik etxera,
pozik joaten dira
alkarri launtzera;
matto goxuak eman (1)
askoren antzera,
«Datorren jaia arte
konforme bazera!»
Sasoï dan arte saia
libertitutzera...

(1) *matto*: eldu, besarkada, musu.

12/ Pello Aranburu naiz
atrebentziyakin,
Arrua'ko semia
nai duenak jakin;
ola libertitzen naiz
nere bertsuakin,
gorrotorik ez det nai
bate iñorekin,
danak ondo-ondo bizi
osasurekin. (2)

(2) Pellok berak eskribitutako orri batetik.

«TXINTXIÑAREKIN NATOR...»

Pello, bere azken urteak pasatzera, Zestua'ko ospitalera erretiratu da. Mojak ostiralero kalera eskera bialtzen dute. An ibiltzen da kalez-kale ta bazterrik bazter, *kanpanilla* bati eragiñik, baita ere bertso batzuk kantari, ala komeni bada. Ara emen bertso oietako batzuk, Pellok berak emanak:

1/ Txintxiñarekin nator
limosnaren billa,
aurrian ikusten det
nik jende umilla;
istimatzekua da
orlako kuadrilla,
borondatia duna
azaldu dedilla.

2/ Goguan artu izan
Pelloren esana,
deseo-paltan enaiz
beñere izana;
pobriari laguntzen
saiatu al dana,
emango bazendute
limosna on bana!

3/ Pixka bat dantzatzera
nijua mingaña,
gauza guziyak dauke
norbere tamaña;
kontuak kontu izan-
go dirade baña,
gaur aterako banu
gastutako aña!

4/ Jendiak emen dauka
zerbait entzun naia,
gaur pasako bagendu
egun bat alaia;
Arrua-be'kua da
Pello bertsolaia,
alkarri laguntzeko
orain da garaia.

5/ Kantu-lanian gera
askotan jardunak,
zerutik laun deigula
Jesukristo Jaunak;
istimatzekoak dira
olako euskaldunak,
gora gaur eta beti
Pelloren lagunak!

6/ Onera etorri naiz
gaur zorionian,
lagun txarrak eztauzkat
nik aldamenian;
pozaz zoratzen nago
Uztapide'nian, (1)
berriz e bilduko naiz
usteik gutxienian.

(1) Bar Uztapide, Uztapide bertsolariaren anai batena.

ZESTUA'KO MARTZELINO LAGUNARI

Zestua'ko bere Martzelino lagunaren-
tzat bi bertso aukeratu jarri ta kuadernotxo
batean apuntatuta zeuzkan Pellok:

- 1/ Jan-edanian abillak baña
lanian ere azkarrak,
beren denboran ez dute eman
batere muestra kaxkarrak;
barrenderuak garbitze'ituzte
Zestua aldeko baztarrak,
Martzelino onek karriatze'itu
automobillan zakarrak.

- 2/ Bate gezurrik gabetanikan
esan biar det egiya:
nunbaitetikan ekarri biar
eguneroko ogiya;
Zestu aldia ementxe dago
oso dotore jarriya,
al dan ondona goberna zagun
bakoitzak geren erriya.

«ZERU GOITIKAN...»

Pelloc, Fernando izena duan anai bat badu. Fernando au, gaztetan beintzat, bertsoan pixka bat zekiana zan. Beraren bertso batzuk Gaztelu bertsolariaren liburuan arkituko ditu irakurleak: Auspoa, 61, 116'garren orri-aldean.

Oraingo ontan Pelloc bere anai oni ta beraren emazteari paratutako bertsoak argitaratzen ditugu. Pelloc berak bialdu dizkigu, 1970'garren urteko Ilbeltzean.

- 1/ Zeru goitikan onuntz begira
dago Jesukristo Jauna,
pekatarien salbatzallia,
danok ondo dakiguna;
Abenduaren ogei ta laua
Gabon deritzen zaiguna,
zoriontsua izan dedilla
bera jaio zan eguna.

- 2/ Gora Fernando biotzekua,
igualmente Eujeni,
pare bat bertso kantatutzia
oraiñ ez al da komeni?
Aldi batzutan ematen dizkit
makiñatxo bat armoni,
afai ederra egin degu ta
oso kontentu nago ni.
- 3/ Eujeni onek ipiñi digu
sekulako afariya,
aspertu eziñik ementxe dago
gaur Pello bertsolariya;
koziñan ondo ikasiya da,
ori ez al da egiya?
Gabon-eguna zelebratzeko
bagendun zure premiya.
- 4/ Eujeni oni eman biaizkat
eskerrak eta graziyak,
gero penikan ez du izango
munduan ondo biziya;
saiatu eta irabazitzen
dirade induljentziya,
gaurko onetan barka'izkidazu
nere ofensa guziya.

5/ Donosti ontan gaur egin degu
sekulako reuniyua,
istimatzeko gauza da noski
onelako uniyua;
zar da gaztiak errespetatu
zagun Ebanjeliyua,
Jaun Zerukuak emango dio
merezi deun premiyua.

6/ Koziñan ondo dakina beti
istimatzen da nunari,
nere anaiak ere jate'itu
mokadu goxo ugari;
zerbaitegatik orrek lepua
dauka onenbeste lori,
gure Jainkoak laguntzen dio
piñ jokatzen duenari.

- 7/ Egun batian bildu ziñaten
zuek biak alkarrena,
esposatu ta biajatzera
gero Madrillen barrena;
praille zar batek eman zizuen
bakoitzai bere ordena:
pake deunian bizi izatia
gauzarikan ederrena.

- 8/ *Buen Pastor*'en artu zenduten
bein batian uztarriya,
egun arretan egin genduan
bankete izugarriya:
jan eta eran, kafe ta guzi,
kopak txuri ta gorriya...
Donostiya'tik kontentu nitzan
Saikola'ra etorriya.
- 9/ Bata besteai lagundutzeko
ementxe gaude prestuta,
Pellok dadukan borondatia
dago manifestatuta;
padrino pozik juan nitzaden
biyotzetikan poztuta,
etzazu uste nik egun ura
daukatenikan aztuta.
- 10/ Bai al dakizu ze bertso oraiñ
kantatutzera nuan-da,
gu gaude beti obetoago
bizitzeko asmuan da;
Pelloren txanda etorriko da
akaso urrenguan da
egun ederrak pasako ditu
Madrill aldera juanda.

11/ Beiñ onetara naizen kasuan
eman biet aditzera,
gezurra esanda ez nua iñor
batere engañatzera;
beti bakarrik ibilli gabe
beste askoren antzera,
neskazarren bat artuta nua
lenbailen esposatzera.

12/ Amabigarren bertsuarekin
onekin da bukaera,
lenago ere lanteri ontan
askotan jardunak gera;
oraiñ artian nere biyotza
beti dijua pakera,
aurrera ere saiatuko naiz
berri onak ematera.

AOTIK AORA

Atal ontan Pellok aotik aora kantatu-tako bertsoak bildu ditugu; ez noski arek bere denboran bota dituan guziak, jaso al izan ditugun pizarrak baizik. Berak emanak ditugu.

Olako beste bertso batzuk, Pellok kantatuak alegia, Gaztelu bertsolariaren liburuan arkituko ditu irakurleak: Auspoa 61, 55'garren orri-aldean.

* * *

Onela kantatu zuan bein batez Pellok bere buruagatik:

Errespetuan eraman nai det
beñ asitako ariya,
triste dagona konsolatzeko
bada zeozen premiya;

gure Jainkuak bein eman zidan
ontarako memoriya
aita zana zan dultzañerua,
ni berriz bertsolariya. (1)

* * *

Egun batez bertso au kantatu zuan
Gaztelu bertsolariak Aginaga'ko Espaldi-
berri'n:

Gauza bat egin biet
oraiñ adierazi,
pixka bat kantatzia
ez al du merezi?
Gorputza gobernatzen
ederki ikasi,
jan gabetanik ezta
tripa zar oi azi.

Pello ere an zan, eta entzun ta ikasi
zuan bertso ori. Gero, Gazteluri erantzu-
teko bezela, beste bertso au pentsatu
zuan:

Zu bezela mundura
gu're sortu giñan,
mokadu onak jaten
saia alegiñan;

(1) Onen antzeko bertsoa, ...'garren orri-aldean
arkituko du irakurleak.

razionamentuan
ibili baziñan,
pixka bat plakuago
gaur egongo ziñan.

* * *

Lasarte'ko «Gure Etxea» tabernan lau
bertsolari ziran: Uztapide, Basarri, ta bi
afizionatu: Pello Saikola ta beste bat.

Saioa egin ondoren, puntu au jarri
zion Basarrik Pellori:

Oraingo ontan Pellok
egingo du pota...

Ta Pellok:

Bertsuak kantatzeko
emen nago pronto;
ez degu euki biar
iñoren gorroto,
alkarri maitatuaz
ez al degu obeto?

* * *

Jai-gau batean, etxe aldera zijoazen
Martzelino Goikoetxe-koa zana, Jose Izo-
tegi'koa ta Pello Saikola.

Juan Joxek galdetu zuan:

—Ze ordu ote degu?

Martzelinok linterna bat atera zuan,
aren argitan relojuari begiratu ta onela
erantzun zuan:

—Ordu bata ta erdia.

Orduan Juan Joxek puntua jarri zuan:

Martzelinok atera du
bere relojua?

Ta Pello Saikola'k onela osatu zuan
bertsoa:

Uste det badaukala
naikua lujua;
ordu bata t'erdiya
izan biau jua,
gu trankil gaude baña
denbora dijua.

* * *

Pellok Zestua'ko Roke Arozena'ri zo-
rionak ematearren kantatua:

Bertso txiki bat kantatutzera
nijua Roke Jaunari,
zere denboran egiña zera
karidadia ugari;
zorionak gaur ni ematera
nua oraintxe bedori,
Pellon partetik urte asko ta
ondo-ondo bizi beri.

* * *

Oñati'ko Don Juan Arregi apaiz jaunak bisita egin zion bein batez Zestua'n Pellori. Alkarrekin kafea artu ondoren, despedirakoan, bertso au kantatu zion Pellok:

Bertso polit bat kantatuko det
oraiñ al dedan bezela,
Pelloren lagun biotzekuak
konsolatu ditezela;
notizi onak bialdu'itzazu
Oñati'ra zuazela,
galdetzen dunai esan zaiozu
ni ondo bizi naizela.

* * *

Ateraldi auek ere aotik aorakoak dira.
Bertsolari jator guziak olako asko izan

oi dute. Orregatik jartzen degu onako au
emen.

Bein batez Pellok onela galdetu zuan:

—Zein ari da or belar ebaten?

Erantzun zioten:

—Manuel Lizardi.

Ta Pellok:

—Aterako du zoku ortan makiña bat
izardi!

KONDARRAK

Pelloc badu galdurik bertso-sail bat baño geiago. Arkitzearren alegiñak egin ditugu, bañan alperrik. Bertso bat edo beste berak buruan dauka, ordea. Kondar oiek atal ontan bildu ditugu.

Euskerari buruz jarritako sail batetik, bertso bakarra:

Gure izkuntza ederra
ez dedilla galdu,
illunpetatik nai det
bistara azaldu;
segira ematia
merezi ez al du?
Aurrera ere Jainkuak
lagunduko al du!

* * *

Erligioari buruzko sail batetik bertso auetzaz oroitu da orain Pello:

Gure Jesus maitia
jaio zan Belen'en,
pekatari guziyak
salbatutziarren,
gorroto gabe bizi
gaitezela alkarren,
per omnia saecula
saeculorum amen.

Jaunari erregutze'iot
makiña bat aldiz,
iltzeko bildurrik ez
inpernua ezpalitz;
etsai gaiztuak beti
toriatzen dabiltz,
qui tollis peccata mundi
miserere nobis.

* * *


Ta bein batez Pellok pentsatu ta pape-
rean ezarria:

Zeru erdira bildu nai luke
Jesus maitiak gurekin,
ze sufrimentu eraman zuan
Jaungoikuak berak jakin;
pekatarien Salbatzallia,
Jauna, or dago zurekin,
batere mantxik gabetanikan
zure Espirituarekin.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I.
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan.
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak.
10. Errege eguneko bertso sayoa (1962). (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren.
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I.
16. *A. M.^a Zabala*: Gabon gau bat.
17. *A. M.^a Labayen*: Malentxo alargun!
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak.
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak.
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962).
23. Aizkolariak.
24. *F. Imaz*: Bertso guziak.
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak.
26. *A. M.^a Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: Periyaren zalapartak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak.
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak.
29. *T. Alzaga*: Burruntziya.
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria.
31. *M. Soroa*: Baratzan.
32. *M. Elicegui*, *A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza.
33. *M. Elicegui*, *A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak.
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin.

39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa.
42. *Uztapide*: Noizbait.
43. *Bertsolari-txapelketa* (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu.
- 45-46. *J. M. Satrústegui*: Bordel bertsolaria.
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra.
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala.
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak.
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria.
55. *Basarri*: Laugarren txinparta.
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria.
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea.
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrústegui*: Luzaide'ko kantiak.
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari.
67. *Bertsolari-txapelketa* (11-VI-1967).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari.
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak.
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria.
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak.
84. *M. Matxain*: Uste gabean.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean.
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria.
92. *I. Alkain* — *A. Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. *A. Zavala, S. I.*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.



AUSPOA
LIBURUTEGIA

IMPRESO EN ESPAÑA